DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa
## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2018ko irailaren 20an** / 20 de septiembre de 2018<br>**Udalbatza Aretoan**/ Salón de Plenos del Ayuntamiento<br>**16:00etan** / A las 16:00 horas |

## GAI ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Kontseiluei buruzko ebaluazioaren aurkezpena Partaidetza arlotik | 1 | Presentación de la evaluación de los consejos desde Participación Ciudadana. |
| Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.<br>(ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2018-06-14) | 2 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.<br>(ver el archivo adjuntos del borrador del acta de 14-06-2018) |
| Diru-laguntza deialdia:<br>• 2018 deialdiaren inguruko egoeraren berri eman.<br>• 2019rako deialdiaren lan-taldearen antolaketa. | 3 | Subvenciones municipales:<br>• Informar sobre la situación de la convocatoria de 2018.<br>• Puesta en marcha del grupo de trabajo de la convocatoria de 2019. |
| 2019rako udal aurrekontu proiektua | 4 | Proyecto presupuestario municipal para 2019 |
| Galderak eta zalantzak. | 5 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 6 | Información sobre próximas actividades. |

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • EAJ-PNV<br>• EH-BILDU<br>• IRABAZI<br>• PP |

10740n XVII

| | |
|---|---|
| | • PSE-EE |
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ALBOAN<br>• BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARRA-ACPP<br>• CALCUTA ONDOAN<br>• CRUZ ROJA<br>• DERANDEIN<br>• EMAUS<br>• ETIOPIAUTOPIA TIKAL<br>• INTERMON OXFAM<br>• LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (IC-LI)<br>• LUMALTIK<br>• MUGARIK GABE<br>• MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK<br>• MUNDUBAT<br>• PROYDE-PROEGA<br>• SETEM<br>• SODEPAZ<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNICEF<br>• UNRWA EUSKADI<br>• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • MUGEN GAINETIK |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación<br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social<br>**Lankidetza Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Cooperación |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 27 kide, jarraian adierazten direnez gain: udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).<br><br>• **Emakumezkoak /** Mujeres = **16**<br>• **Gizonezkoak /** Hombres = **11**<br><br>27 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre). |
| **IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471<br>lankidetza@donostia.eus |

## SAIOAREN BILAKAERA:
## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## 1.- Partaidetzak kontseiluei buruzko ebaluazioa aurkeztu du.

Herritarren Partaidetza Bulegoko teknikari batek azalpenak eman ditu Udalaren eskola-kontseiluak ebaluatzeko prozesuan egindako ibilbideaz, erabilitako metodologiaz eta lortutako emaitzez. Horretaz gain, kontseilu guztientzat baliagarri diren gomendio eta neurri batzuk ere azaldu ditu.

Nahasketa pixka bat ere eragin du, neurri eta gomendio horiek orokorrak direlako, eta ez daudelako berariaz egokituta Lankidetza Kontseilurako. Zinegotziak proposatu du lantalde bat osatzea edo kontseilu monografiko bat egitea, erabakitzeko zer gomendiori eman lehentasuna eta zer neurri aplikatu.

Bestalde, kontseiluko kide batzuk kexatu dira kontseiluek ez dutelako parte hartzen partaidetzako aurrekontuak egiten. Beste proposamen bat izan da ekarpenak idatziz jasotzea, dokumentu batean biltzea eta, gero, lantalde batean lantzea. Batzuek nahiago dute monografiko batean lantzea, lantalde batean betikoek parte hartuko luketelakoan. Gainera, lehen aldiz egingo litzateke kontseilu monografiko bat, eta aldaketa horrek lagundu dezake parte-hartzea hobetzen. Tokiz aldatzea ere proposatu dute, bai eta itzulpengintza kentzea ere, ez baitu laguntzen parte hartzea bultzatzen. Monografiko horretara, Herritarren Partaidetzak banatu duen dokumentu orokorra begiratuta ekartzea ere proposatu dute. Beste batzuek, berriz, uste dute zaila dela erakundeei beste bilera bat egiteko eskatzea, bilerez lepo daude eta. Eskatu dute, baita ere, banatutako dokumentu orokorraren helburuak eta bertan jasotako neurriak argitzeko, gehiago azaltzeko eta testuinguruan jartzeko. Beste

## 1.- Presentación de la evaluación de los consejos desde Participación Ciudadana.

Una técnica del servicio de Participación Ciudadana explica el recorrido realizado en el proceso de evaluación de los consejos asesores municipales, la metodología utilizada y los resultados de la misma, y expone unas recomendaciones y medidas válidas para todos los consejos.

Surge cierta confusión debido a que las medidas y recomendaciones son de carácter general, y no están adaptadas específicamente para el Consejo de Cooperación. La concejala propone la creación de un grupo de trabajo o un consejo mongráfico para decidir qué recomendaciones priorizar y qué medidas aplicar.

Por otra parte, integrantes del Consejo se lamentan de que los consejos no tengan participación en la elaboración de los presupuestos participativos. Se propone también que se recojan aportaciones por escrito, se recoja en un documento y luego se trabaje en un grupo de trabajo (GT). También hay quien prefiere trabajarlo en un monográfico, ya que en un GT acabarían participando las mismas personas de siempre. Además, así se haría por primera vez un consejo monográfico, y supondría un cambio que puede ayudar a mejorar la participación; además, propone también cambiar de espacio y suprimir la traducción, que considera que no ayuda a la participación. Se propone también que a ese monográfico se traiga ya mirado el documento general que ha facilitado Participación Ciudadana. Otras opiniones, sin embargo, consideran que es dificultoso pedir a las organizaciones una reunión más, cuando ya están saturadas. Se solicita también que se aclaren, se amplíen y se

10740n XVII

eskaera bat izan da Lankidetza Kontseilurako egokituta dauden gomendioak baino ez bidaltzea, eta ez gomendio orokorrak, azkarrago lan egin ahal izateko. Adibide gisa, Lankidetzako Plan Zuzentzaileari ekarpenak egiteko erabilitako metodologia aipatu da. Puntuak zerrendatzeko ere eskatu da, haien gainean hobeto lan egin ahal izateko.

pongan en contexto los objetivos y medidas del documento genérico facilitado. Se pide también que se limite el envío de información a las recomendaciones adaptadas al Consejo de Cooperación, no las genéricas, a fin de poder trabajar más rápido. Se menciona como ejemplo la metodología empleada para hacer aportaciones al plan director de cooperación. Se solicita que se enumeren los puntos, para poder trabajar mejor sobre ellas.

Zinegotziak proposatu du epe bat irekitzea ekarpenak biltzeko eta, gero, Batzorde Iraunkorrak erabaki dezala monografiko bat egin behar den ala ez. Azkenean erabaki dute dokumentazioa bidaltzea eta hiru aste uztea ekarpenak egiteko. Gero, Batzorde Iraunkorrarekin batera aztertuko da jasotako guztia, eta orduan erabakiko da zer egin.

La concejala propone que se abra un plazo para recoger aportaciones, y luego la Comisión Permanente decida si es conveniente hacer un monográfico o no. Se queda en que se enviará la documentación y se dejarán 3 semanas para aportar. Después, se revisará lo recibido con la Comisión Permanente, y se decidirá qué hacer al respecto.

## 2.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.

Aurreko akta onartu da, aldaketarik gabe.

## 2.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.

Se aprueba el acta anterior sin ninguna modificación.

## 3.- Udalaren dirulaguntzak:

2018ko deialdia zertan dagoen azaltzea.

Aurreko bileran esan zuten zuzenketak edo falta ziren datuak uztailean bidaliko zirela. Denok dakigunez, dirulaguntzak kudeatzeko aplikazioa berria da, eta ez zen nahiko denborarik izan uztailerako lana egina izateko. Bestalde, erabaki zen abuztuan ez bidaltzea, garai txarra zelako, eta horregatik bidali da irailean, eta 11tik 24a arteko epea utzi. Lehenago, zerbait zuzendu edo osatu behar zuten erakundeei ohartarazi zitzaien eta, Lankidetzaren kasuan, aurkeztutako 28

## 3.- Subvenciones municipales:

Informar sobre la situación de la convocatoria de 2018.

En la sesión anterior, se dijo que se enviarían las subsanaciones en julio. Como es sabido, la aplicación de gestión de subvenciones es nueva, y no dio tiempo a llegar para julio. En agosto se decidió no enviar por ser mala fecha, y por eso se ha enviado en septiembre, dejando de plazo del 11 al 24. Antes se avisó a las entidades que tenían algo que subsanar, y en el caso de cooperación, de 28 proyectos 13 tenían algo que subsanar, en EpTS sólo 2

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

proiektuetatik 13 zuzendu edo osatu behar izan ziren. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza Estrategiaren kasuan, berriz, bakarrik bi proiektu, aurkeztutako 13etatik. Saila haiekin guztiekin harremanetan dago.

Aurkeztutako 28 proiektuetatik, lau elkarlanean aurkeztu dira, partzuergo moduan, eta beste lau, lehen aldiz aurkeztu dira. Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza Estrategiaren kasuan, berriz, aurkeztutako 13 proiektuetatik, sei partzuergo moduan aurkeztu dira, eta bat, lehen aldiz aurkeztu da.

Prozesua asko atzeratzen ari da aurten, lege-aldaketak aldaketa konplexu batzuk ekarri baititu berekin. Hala ere, aurtengo atzerapena gorabehera, lan handia egiten ari da, eta horrek hobekuntza handiak ekarriko dizkio prozedurari datozen urteetarako. Barkamena eskatu dute. Izan ere, aurreko urteetan, data hauetarako behin-behineko ebazpena emana zen. Berrikuntza positibo bat: aurten, ematen den ebazpena behin betikoa izango da zuzenean, behin-behinekoa izatetik pasatu gabe. Beste sail batzuetan, kontua arazotsuagoa da, proiektuak urte naturalaren arabera egin behar direlako. Lankidetzan, gutxienez, denbora gehiago dugu.

Behin betiko ebazpena azarorako egotea espero da.

### 2019ko deialdiko lantaldea martxan jartzea.

Urtero, lantalde bat eratzen da, dirulaguntzen oinarriak aztertzeko. Batzorde Iraunkorrak planteatu du taldea azaroaren 6an biltzea. Oinarriak oso landuta daudenez, uste dute oinarriei buruzko ekarpenak ez direla asko izango; gehienbat, inprimakiei, prozesuari eta abarri buruzkoak

proyectos de los 13 presentados. El departamento está en contacto con todas ellas.

Respecto a los proyectos presentados, en cooperación, de 28 proyectos presentados, 4 son en consorcio, y 4 se presentan por primera vez. En EpTS de los 13 presentados, 6 son en consorcio, y 1 se presenta por primera vez.

El proceso se está retrasando mucho este año, por la complejidad de los cambios debido al cambio legislativo. Aunque este año se retrase, se está haciendo mucho trabajo, que mejorará mucho el procedimiento de cara a los próximos años. Se piden disculpas, ya que otros años en estas fechas ya se sabía la resolución provisional. Como novedad positiva, este año la resolución que se publique será directamente definitiva, sin pasar por una provisional antes. En otros departamentos es más problemático porque los proyectos han de ejecutarse por año natural, en cooperación al menos hay más margen.

Se espera que podrá estar la resolución definitiva para el mes de noviembre.

### Puesta en marcha del grupo de trabajo de la convocatoria de 2019.

Todos los años se crea un grupo de trabajo para revisar las bases de subvenciones. Desde la Comisión Permanente se plantea reunirse el grupo el 6 de noviembre. Dado que las bases están muy trabajadas, se cree que las aportaciones no serán tanto en torno a las bases, como a los formularios, el

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

izango dira.

Tau, Sodepaz, UNRWA, Bakea eta Elkartasuna, Lumaltik, Unicef, Bakerako Lankidetza Batzarrea (ACPP) eta Calcuta Ondoan erakundeen ordezkariek izena eman dute.

Deialdia bidaliko da. Nolanahi ere, baten batek ezin badu parte hartu, idatziz igorri ahal izango ditu bere ekarpenak. Taldeak kontuan hartuko ditu.

Batzorde Iraunkorrean galdetu zuten ea asmoa zuten aurtengo prozesua ebaluatzeko. Arduradunei esan zaie, eta kontuan hartuko dute.

proceso, etc.

Se apuntan las personas representantes de Tau, Sodepaz, UNRWA, Paz y Solidaridad, Lumaltik, Unicef, ACPP, Calcuta Ondoan.

Se enviará la convocatoria. Si, de todas formas, alguien no pudiera participar, puede enviar sus aportaciones por escrito y el grupo las tendrá en cuenta.

En la Comisión Permanente se preguntó si se contaba con evaluar el proceso de este año. Se ha trasladado a los responsables, y lo tendrán en cuenta.

## 4.- 2019rako udal aurrekontu proiektua.

Sail bakoitzak bere proposamena bidali dio Finantza Zuzendaritzari, eta aztertzen ari dira. Zinegotziaren proposamena igotzea da, baina oraindik ezin du esan zenbat.

Galdetu dute aurrekontuaren barne-banaketari buruz, ea aldaketarik izan den aurreko urteen aldean, eta ea urratsak egin diren zuzeneko lankidetza murriztearen aldera. Galdetu dute, baita ere, ea udako harrerak eta antzeko beste kontu-sail batzuk beste sail batzuetara aldatuz joango diren. Zinegotziak erantzun duenez, proposatutako igoera, konkurrenteei dagokie. Hala, zuzeneko lankidetza murriztuko da. Bestalde, legealdi honetan ez da planteatzen kontu-sailik aldatzea beste sail batzuetara.

Finantzetako zinegotziak azaldu duenez, laster onartuko dituzte sarrera propioak. Oso gutxi igoko dira, gutxi gorabehera, % 1. Azaroaren 2an, hasierako zirriborroa prest egongo da. Udalek ezin dituzte

## 4.- Proyecto presupuestario municipal para 2019.

En este momento cada departamento ha enviado su propuesta a la dirección financiera, y se están analizando. La propuesta de concejalía es de subida, aunque aún no puede decir cuánto.

Se pregunta por la distribución interna del presupuesto, si ha habido cambios con respecto a años anteriores, y si se han dado pasos en el sentido de ir disminuyendo la cooperación directa. También se pregunta si se van a ir trasladando a otros departamento las acogidas de verano, y otras partidas similares. La concejala responde que la subida propuesta es en las concurrentes, y así baja la cooperación directa, y que en esta legislatura no se plantea mover partidas a otros departamentos.

El concejal de finanzas explica que en breve van a aprobar los ingresos propios, en los que va a haber una subida muy moderada de alrededor el 1%. El 2 de noviembre se tendrá el borrador inicial. Un Ayuntamiento

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| inbertsioengatiko diru-sarrerak gastu arruntetarako erabili. Horregatik, zaila da behar guztiak betetzea. Abenduaren 22-23 aldera, behin betiko aurrekontua prest egongo da. Emailez bidaliko da.<br><br>Galdetu dute ea Gobernuak baduen portzentaje jakin bat helburutzat, epe luzera bada ere. Erantzun dute negoziazioa zenbatekoen gainean egiten dela, baina saiatzen ari direla % 0,7ra iristen, pixkana-pixkana. | no puede destinar ingreso de inversiones a gasto corriente, por lo que es complicado cubrir todas las necesidades. Hacia el 22-23 de diciembre estará el presupuesto definitivo, que se enviará por e-mail.<br><br>Ante la pregunta de si el Gobierno tiene un porcentaje concreto como objetivo, aunque sea a largo plazo, se responde que la negociación es con cantidades, aunque se procura ir acercándose al 0,7%. |
| **5.- Galderak eta zalantzak.**<br><br>Galdetu dute ea Lankidetza Bulegoa lan egiten ari den Donostiara iristen ari diren pertsonekin, bidean daudenekin. Erantzun dute hori ez dela Lankidetza Bulegoaren eskumena, Gizarte Ongizatearena eta Kultur Aniztasunarena baizik. Lehena, kasu egiteaz eta esku hartzeaz arduratzen da eta bigarrena, sentsibilizazioaz eta prebentzioaz. | **5.- Ruegos y preguntas.**<br><br>Se pregunta si desde Cooperación se está trabajando con las personas que están llegando en tránsito. Se responde que no es competencia de Cooperación, sino de Bienestar Social la atención e intervención, y desde Diversidad Cultural la sensibilización y prevención. |
| **6.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.**<br><br>Kontseiluko kideek antolatutako hurrengo ekintzei buruzko informazioa partekatu dute, eta eskatu dute elena_sanz@donostia.eus helbidera bidaltzeko, San Sebastián Munduen Artean-en kontuan har dadin. | **6.- Información sobre próximas actividades.**<br><br>Se comparte información sobre las próximas actividades organizadas por integrantes dle Consejo, y se pide que se recuerde enviarlas a elena_sanz@donostia.eus, a fin de que se incluyan en el Donostia Entre Mundos. |
| Beste aztergairik ez dela, 17:25ean amaitu da bilkura. | No habiendo más temas que tratar, finaliza la sesión a las 17:20 |

10740n XVII